


Euskararen

2

sentsibilizaziorako

pilula:

euskara hobetzeko aholkuak, euskarari buruzko
berriak, euskal kultura eta askoz gehiago!



1 Euskara hobetzen: eten puntuak nola erabili “..”

Hiru puntuz osatutako marka hau **hainbat helbururekin** erabil daiteke, hala nola, **esaldia amaitu gabe utzi dela adierazteko, zalantza, beldurra, lotsa, misterioa...** adierazteko. Nola erabili, ordea, testuan?

- Etenpuntuak esaldiaren **amaieran** idazten baditugu, **ondoren maiuskula** erabili behar dugu:

“Bat-batean leherketa bat entzun zen eta... **B**egiak ireki zituenean ospitaleko gela batean zegoen”.






- Etenaldia esaldiaren **erdian** egiten badugu, ordea, ondoren **minuskula** erabili behar dugu:

“Ikertzaileek hezurak, tresnak... **a**urkitu zituzten”.

- Gogoratu etenpuntuak erabiltzen ditugunean, **aurretik ez dugula komarrik** jartzen. Estilo aldetik, gomendatzen da etenpuntuak soilik perpausaren **bukaeran** erabiltzea, eta esaldiaren erdian “eta abar” erabiltzea.



2 Musika-taldeak emotikonotan





Ekhilur, ordainketa-sistema herritarra



Ekhilur ordainketa sistema Bilbon eta Hernanin dago martxan gaur egun. Hego Euskal Herri osoan erabilgarri egotea da etorkizuneko helburua.


Oso harrera ona izan du proiektuak. Guztira, Bilbon 40 komertzio inguru daude Ekhilurren ordainketa sistemarekin, eta, Hernanin beste 110 inguru. Gainera, Hernanin 900 erabiltzaile inguruk eman dute izena. Guztira, Ekhilurrek 11 hilabetean milioi bat eurotik gora mugitu du dagoeneko.

Informazio gehiago: berria.eus



4

Umorea



De Rerum Natura


@zaldieroa

HEMENDIK
20
URTERA
esango ditudanak

Azaroan eta abenduan
28 gradutik behera
geunden...

Bagenuen hitz bat
horretarako: **HOTZA!!**

"OTZA"?!
ez!
H-rekin!





Mila esker!

Hurrengo Pilulara arte

Proposamenak, iradokizunak, zalantzak...



i.lizeaga@elhuyar.eus